


Astekaria

BARRREN


elgoi



Rafa Feijoo,
intsumiso izateagatik epaituko
duten lehen elgoibartarra



Automoviles Lerun
Zerbitzu Ofiziala



FORD *Mondeo* BERRIA

Zatoz bere indarra eta edertasuna probatzera

AURKEZPENA : 13 larunbata 12,30 etan.

3 LAU HANKATAN

"Elgoibarko elizan preminazko konponketak egin behar dira eta honek diru iturriak eskatzen ditu". **Alberto Ansuategi.**

6 ERREPORTAIA: LOPEZ ANAIK ELGOIBARTIK JOAN DIRA

Beraien aitona izozki saltzaile zen eta hura baino lehenago ere, lanbi-de horretan aritu omen ziren arbasoak.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: TELEFONOA ALA ESKUTITZA

Marga Zapata: "Eskutitza berpizteari beharrezkoa deritzot, beste gauza batzuen artean, telefonoa eskutitza baino hotzagoa baita..."

Maria Luisa Gurrutxaga: "Minutu gutxitan, nahi duzun pertsonarekin mintza zaitezke, nahiz eta kilometro askotako bitartea egon".

12 BERBETAN: RAFA FEIJOO

Rafa Feijoo intsumisoa hilaren 16an epaituko dute.

14 KIROLA:

GAIA: ESKUBALOI ESKOLA SORTU DA ELGOIBARREN

ELKARRIZKETA: **Angel Mari Albizu:** Euskadiko judo txapelduna.

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

KARAKATE: PERRETXIKU IKERKETAN AITZINDARI.

17 KULTURA

ELGOIBARKO HISTORIA KOMIKIETAN KONTATUA

TXANDAK

FARMAZIAK:

13, larunbata: YUDEGO

14, igandea: YUDEGO

15, astelehena: BIDASOLO

16, asteartea: BIDASOLO

17, asteazkena: BIDASOLO

18, osteguna: BIDASOLO

19, ostirala: BIDASOLO

OKINDEGIAK:

14, igandea: EIZAGIRRE



PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak742950

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emailen elkartea.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkarte
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirrezaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatearen diseinua
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Agur Miren
Barandiaran, Lorea
Gorostiaga, Jon Eugi,
Hasier Etxeberria, Maite
Iriondo, KOKOE, Aitor
Lodoso, German
Meabebasterretxea, Susana
Mugika, Jasone Osoro,
Diana Perez de Albeniz,
Lorea Perez de Albeniz,
Sagundo Raigoso, Andoni
Rementeria, Eduardo Sanz,
Aitor Zabaleta, Javier
Zarzuolo.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12


Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.025/92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Alberto Ansuategi

Haec est domus domini

"Haec est domus domini, firmiter

aedificata..." baina zoritxarrez sitsak ez du latinik ulertzen. Gure herriko eliza gaixo dago, azala ximelduz doakio eta hezurretako gaitz batek jota, ia bereak egin du. Hirurehun urte asko dira inongo berrikuntzarik gabe haize eta euriaren aurka borroka egiteko.

Elgoibarko elizan preminazko konponketak egin behar dira eta honek diru iturriak eskatzen ditu. Krisiak eta aurrekontuen murriztapenek ekarri diguten lehortearekin, garai latzak ditugu honako hauek iturri bila aritzeko. Halere, gerrikoa apur bat gehiago estutzeko prest agertu zaigu Elgoibarko herria eta berea izan da lehendabiziko aurrera-pausoa. Hurrengo ematea beste norbaitzuei dagokie (Udaletxe, Aldundi eta Gotzategiari, alegia) eta espero dezagun lehenbaitlehen gertatzea, eliza erori aurretik bederen.

Agian fede gutxiko gizakia izango naiz, baina ezin ahaztu daiteke direla egun batzu "Campo Volantin"ean gertatutakoa, konponketen erantzunkizuna norena zen eztabaidatzen ari zirela pasealekua ibaira erori bait zitzairen. Baina hau ez da Bilbo, eta geure eliza ibaitik urrunegi aurkitzen da, ez da?

Beraz, badirudi epe laburrean sitsak jandako bigak kendu eta berriak jarriko direla gure herriko elizan, baina

zalantzak ditut ez ote diren hauek gure elizan egingo diren berrikuntza bakarrak izango.

Guztiontzat aberasgarria eta beharrezkoa izaten da noizean behin bidean atsedena hartu eta geure pausoak norabide egokian doazela ziurtatzea. Elizak ere, instituzio bezala, gauza berbera egin beharko luke eta aukera aparta iruditzen zait honako hau herriko errealitatera hurbiltzeko. Gizarteak aurrera egiten du eta Elizak, gizartearekin egon nahi badu behintzat, neurri berdineko garapen bat bilatu beharko luke. Elizaren zenbait egitura eta sineskeria zaharkituak gelditu dira, sitsak janda, herritarren buruen gainean erortzeko arriskutan aurkitzen dira. Argitatu berri den katezismoak joera hau baieztatu besterik ez du egin. Bada garaia bi mila urte igaro direla onartzeko.

Agian norabide aldaketa honek ez ditu erlijioaren inguruan sortu diren gatazkak konponduko, ziur ezetz, baina behintzat Elizak bere izakerarekiko koherentziaz jokatu luke, mugimendu integratzaile bat izango litzateke eta hori gaur egun ez da edonon aurkitzen.

Gaur kalera ateratzen naizenean, eliza aurretik igarotzean, bere itzala nabaritu dut eta poztu egingo naiz zutik dirauela ikustean, ze azken batean, ere batera edo bestera, arkupe horiek gure bizitzaren une asko bete baitituzte. Gogoratzen "a txutxi hamaika" jolasten genuen garai hura?

JAVI ITURGINTZA BEROGAILUAK

Iturria tantaka duzula...

☎ **74 14 80**

Erretxindi 1-4 B

Pasa den astean atal honetan egindako oker bat zuzendu nahi dugu: "arrakastako pisua arindu aurretik" zioen tokian "arrastakako pisua arindu aurretik" behar du izan.

Gure Herriaren Askapen Teologiarantz

Ez noa Askapen Teologia zertan datzan adieraztera, urrutira eramango ginduzke. Ni Askapen Teologiaren urratsetatik nabil, bide horrek eman dit, oraingoz behintzat, nire kristau lanean jarraitzeko kemena eta horrek eusten dio bizirik nire kristau utopiari.

Gure Herriak, bere askapen bidean duen prozesu zail eta korapilotsuenetako bat, bere hizkuntza, euskara alegia, bizirik iraunaraztea litzateke. Ez da hain gauza erraza, etsai asko baititu, maltzurak eta boteretsuak, aurrez aurre, eta etsai

geldo asko ere bai, tartean, barnekaldean.

Euskarak zapalketa handiak, itzelak, jasan ditu, eta jasaten ari da, batzuen indarkeriaz eta besteen, lehen aipaturikoen, geldokieriaz.

Aintzinatik, gure artean, hizkuntza dominatzailea gaztelania edo erdaraz izan dugu eta, zoritxarrez, aurrerantzean horrela izaten jarraituko du. Jarri, nahi dituzun salbuespen guztiak, baina menperatua... Azterketa soziologikoez horrela diote.

Azken aldi honetan zenbait gauzatarako euskara jakitea, baldintza bezala eskatzen dela eta, gu zapalduak izatetik, zapaltzaile bihurtu nahi

gaituzte zenbait politikok eta bestelakok. "Euskara inposatzen ari baikara". Benetan harrigarria!!!

Mende baten zehar gutxienez, gure hizkuntza birrintzen saiatu dira, hil zorian jarri dute, eta Kristau Etika oinarritzko baten ikuspuntutik, jarrera honek erreparazio bat esijitu behar luke. Kalte eginarene barkamen baldintza bakarra erreparazioa da. Erreparazio hori egiten ez den bitartean, barkamen hori auzitan dago.

Kendu digutena: hizkuntza, kultura, arimabera ere kendu baitigute, itzuli behar digute. Zorra ordaintzen ez den bitartean ez da barkamenik gertatzen, ez eta bakerik ere,

gutziz ezinezkoa da.

Gure Herriaren askapen prozesu luze eta latz honek eskatzen digu, gizon/emakume askatuak izan nahi badugu, gure hizkuntzari, kulturari eta arimari eustea eta hil zorian, morrontzapean aurkitzen den euskara hau askatzea.

Bide bakarra, etsi gabe borrokan jarraitzea litzateke. Gure dilema garbi dago: askatu ala hil, herri bezala bare-bare hiltzea. Hori nahiko lukete banakak askok....

Hizkuntza dominatzaile bat besterik ez dugu eta hori ez da, ez, euskara; denok dakigunez, gaztelania edo erdarara da.

Jose Luis Beloso Ulazia



ETENGABEKO FORMAZIO ETA ERREZIKLAI PROGRAMA

Egitasmo honen baitan, teknikari eta zuzendarien kualifikazio maila hobetu eta etorkizuneko langilearen formazioa sustatu nahian, I.M.H.ak 1993 urteko lehen sei hilabeteetarako jarraian aipatzen diren kurtsoak jarriko ditu martxan:

PRODUKZIOA

(Iraupena ordutan)

■ Produkzio eta antolakuntza gestioa 105

FABRIKAZIOA

- Mekanizatu Prozesuak eta C.N.C. Programazio Planifikazioa 86
- C.N.C. tornea I eta II mailak 161
- Fresadorak eta C.N.C. Mekanizatu zentroak (I eta II) 161
- C.N.C. Fresadora. II maila 92

MANTENUA

■ C.N.C. Makina Herraminten instalakuntza eta mantenua 80

AUTOMATIKA

- Mekanikoentzako Elektronika industrialia 80
- Automata Programagarriak 80
- Automatismo elektrikoak, Neumatiko eta Hidraulikoak 138
- Automatismo elektrikoak 92
- Neumatika eta Hidraulika 80

DIBUJO TEKNIKOA ETA DISEINUA

- Planoen interpretazioa I eta II mailak 126
- ANIVIL 1000 eta 5000 Ordenagailuz Egindako Diseinua 115
- Diseinu Mekanikoko Tolerantziak 35
- Ordenagailuz Egindako Diseinua: Autocad (I eta II) 138
- Makinen Osagaien Kalkulo, Diseinu eta Eraikuntza 92

METROLOGIA

(Iraupena ordutan)

- Metrologia Dimentsional Neurketen Instrumentuak eta Ekipoak 115
- Ekipo Basikoan Kalibrazioa Metrologia Dimentsionalean 80
- Interferometria laser-eko Neurketa 46
- Koordinadaz Neurtzeko Makinak: Oinarri eta Aplikazioak 70
- Koordinadaz Neurtzeko Makinentzako "Tutor" Programazio Sistema 37

MATERIALAK

- Materiale Tradizionalen Ezagutza eta Compositesen sarrera 115
- Konponente mekanikoen Erresistentzia eta Fiabilitatea 138

KALITATEA

■ Kalitate Gestioko Teknikak 80

GIZA ERREKURTZOAK

■ Erdi Mailako Agintaritzarako Giza Errekurtsoen Gestio teknikak 60

INFORMAZIOA:

MAKINA HERRAMINTA INSTITUTUA
Tel.74 41 32 Fax.73 41 53
San Roke Auzoa 1 (Elgoibar)





Aste honetako erretratua **Jone Ajuriak** laga digu. Berak esan digunez 1942. urtearen bueltan ateratakoa da. Non dauden? "Cafe Izetaren" kanpoko mahaietan. Gazteok hasiko zintzen seguraski Elgoibarko kafetegien errebasoa ematen; ez segi! ez duzue inon topatuko eta. "Cafe Izeta" egun "Gabi" taberna dagoen tokian zegoen. Jonek esan digunez, Trinitate jaietan ateratako erretratua omen da. Egia esan jaiak edota fetxa "inportanteak" izan behar hain dotore jantzirik ibiltzeko. Gaur egun San Bartolome egunean ere ez da hain gizonez-

ko elegantetik ikusten! Gaur adina pelukeria ez izan arren, ile orrazkerek ez dute inongo aitzakirik. Ez dakigu laka edota gomina botatzen zuten baina goizean orraztutako ileak bere horretan bueltatzen ziren gau partean. Ez zen ile horiek mugituko zuen haizeirik. Halamoduzko ilea zutenek, berriz, txapela alboka jarri eta aurrera.

Jakin dezagun zeintzuk diren: (ezkerretik eskuinera)

Jesus Ajuria, Manolo Mujika, bilbotar bat, Jose Mari Mujika, Ramon Ansola (Txanbolin), Aurelio Mujika eta David Alonso "Piña".

Aterpe

Taberna



Tel: 74 25 95



Afari merkeak

- * Kazuelatxoak
- * Oilasko erreak (aurrez eskatu)



Urtebetetze gonbiteak

- * Txokolatea eta pastelak



Arratsaldea pasatzeko

- * Karta joko eta berbetarako giro aparta

Aurrez enkargatu ezkerro, hobe!

NAVA

Jupresoreak
Jupresoreak
Jupresoreak
Jupresoreak
Jupresoreak



Sta. Ana, 44
Tel 74 44 51

Lopez anaiak Elgoibartik joan dira

Nobela bat letraz betetzeko adina istorio eta gorabehera dute beraien bizkarretan. Tarte honek horrenbesterako ematen ez badu ere, Lopez familiaren historiari buruzko pare bat zertzelada ematen ahaleginduko gara. Duela pare bat aste joan ziren Lopez anaiak, beraien jaioterrira, Santanderko Vega de Pas herrira, beraien bizitza ia osoa Elgoibarren eman ondoren.

Beraien aitona izozki saltzaile zen eta hura baino lehenago ere, lanbide horretan aritu omen ziren arbasoak. Santiago Lopez, Lopez anaia ezagunen aita, gaztetandik ibili zen han hemenka izozkiak eta barkiloak saltzen. Gerra aurretik emaztearekin Elgoibarren izana zen baina ez ziren berriro Elgoibarrera itzuli 1948. urte ingurura arte.

Lehendabizi aita, ondoren anaiak eta arre-bak, piskanaka familia osoa anaia bat ezik, Elgoibarrera itzuli eta izozki eta barkiloen negozioarekin hasi ziren. Santa Klarako komentu aldameneko etxe batean ezarri zuten, barkilo fabrika lehenengo eta izozki fabrika ondoren. Gure artean ezagunenak anaiak diren arren, fami-

liako kide guztiek lan egiten zuten izozki lantegian.

Lehendabiziko urteetatik, aitek karroa hartu eta Udaletxeko lehen arkupe azpian barkiloak saltzen zituen, gainontzekoek, etxean lanean jarduten zuten bitartean. Jai-rik bazegoen, Alzola, Mendaro edo Maalan, aita, karroa hartu eta oinez edo bizikletaz, bertara hurbiltzen zen gainontzeko karamelo saltzaileei aurrea hartuz.

Laister semeak aitari laguntzen hasi ziren. Barkilo bonboa eta izozki karroarekin inguruko herrietako jaietara joaten ziren. Gipuzkoa eta Bizkaiko herrietako jai gehienetan ibili dira Lopez anaiak. Jaiak ez zirenean, Elgoibar, Deba eta Plaentziko kioskoetan saltzen zuten.

Negu partean gaztai-



Lopez familiako alabetariko bat izozki karroarekin.



Eleizako arkupetan Lopezarren aita bere semearekin.

nak saltzen zituzten. Anaia nagusia, Manolo, tabernaz taberna ibiltzen zen gaztaina erre berriak saltzen, baina ez zitzaion lan hori batere gustatzen.

Furgoneta erosi zute-nean, duela 30 bat urte, lana asko arindu zitzaien. Egunero, uda partean, goizean goiz jaikita,

Debako hondartzaraino hurbiltzen ziren. Furgoneta gain, Deban postu finko bat zuten eta Jesus zen hartaz arduratzen zena. Neguan, Debako postua itxi eta Plaentziko kioskoan lan egiten zuen Jesussek.

Bigarren furgoneta ere erosi zuten eta 1973. urtean San Bartolome

Santiago Lopez



Lehendabiziko urteetan igande eta jai egunetan barkiloen bonboarekin Markinara joaten zen oinez. Gáinontzeko egunetan izozkiak eta barkiloak egiten jarduten zuen. Azken urteotan gozoki dendan aritu zen, semeekin batera.

Francisca Pelayo




1936. urtea baino lehenago barkiloak saltzen ibili zen Deban. Ondoren, Santanderrera bueltatu zen seme alaben heziketaz arduratzeko. Familiarekin batera Elgoibarrera itzuli zen urte batzuren buruan.

Manolo Lopez



57 urte. Gazte zenetik aitari laguntzen zion. Ondoren, furgonetarekin herri ezberdinetako jaietan ibili da. Deban izozkiak saltzen zituen furgonetarekin. 1973. urtetik anaia Angeli laguntzen ibili da San Bartolome kaleko dendan.

Vicente Lopez



50 urte. Lehendabiziko urteetan izozki karroarekin jairik jai ibiltzen zen. Ezkondu eta Santanderrera itzuli zen. Gaur egun Santanderren dauka izozki negozioa.

Jesus Lopez



55 urte. Izoziak egiten zituen lantegian. Arratsaldetan Deba eta Plaentxiko kioskoetan saltzen ibili izan da 14 urte zituenetik.

Angel Lopez



47 urte. Hamasei hamazazpi urte zituenetik aritu da familiako negozioan lanean. izozkiak egiten eta Plaentxiko kioskoan laguntzen. 1973an, denda zabaldu zutenean, haren kargua hartu zuen.

Jose Luis Lopez



45 urte. Foruen Plazan izozki karroarekin egoten zen Eibarrera ezkondu zen eta azken urteotan San Bartolome kaleko dendan laguntzen aritu da.

kaleko denda zabaldu zuten. Angel, anaia gazte-enaren aurrekoak hartu zuen dendaren kargua, Jesus Plaentxiko kioskoaz eta Manolo furgonetaz arduratzen ziren bitartean.

Hogei urte beranduago, hau da, aurtun, dendaren alogera bukatu zaie. Santa Klaran zuten fabrika itxi egin behar izan dute bertan etxebizitzak egiteko proiektua baitago. Beraiek zahartzen doazela eta

fabrika berria jartzeak merezi ez duela eta, Santanderrera bueltatzeko garaia dela erabaki dute Lopez anaiek. Eibarko ilobek, joan diren hauen errebua hartu dute.

Lopeztarrak San Bartolome kaleko dendan daude berriro.

Aldegin aurretik Lopez anaiek beraien esker ona adierazi nahi izan zuten lerro hauen bidez:

"Gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu Elgoibar, Deba eta Plaentxiko herritarrei eta oroherrean Euskal Herri osoari bertan jaso dugun harrera onagatik. Zuei esker, gure lana eta, azken finean, gure bizimodua izan dena gustora burutu ahal izan dugu".

Lopez anaia

Eskutitza ala telefonoa?

Eskutitza, piskanaka piskanaka galtzen ari garen komunikabide zahar, berezi eta garrantzitsuenetariko bat dela uste dut.



Halere, gero eta gehiago garatzen ari den gizarte batean bizi garenez, beste komunikabide batzuei ireki dizkiegu ateak, hots, telefonoari, faxari, etab...

Ene ustez, gure gizarte garatua ezetik, presazko gizarte bat ere bada eta presa horrek bultzatzen gaitu beste komunikabide azkarragoetara jotzera. Zeren eta eskutitzen munduak, aintzinakoa bada ere, inoiz ez baitu frogatu inolako azkartasunik, ezta denbora pasa ahala ere. Hobetu denik ezin daiteke uka, baina ez behar zuen beste.

Nik uste, horrek, hau da, azkartasun ezak eskutitzen etorkizuna akabatu duela, beste gauza batzuen

artean.

Adibide gisa aipatuko ditut Gabonak. Hauek oso aproposak izaten dira eskutitzak ez badira ere postalak bidaltzeko, baina ohitura hau ere, tamalez, galtzen ari gara eta, idatzi beharrean, askoz azkarragoa den telefonora jotzen dugu.

Beraz, eskutitza berpizteari beharrezkoa deritzot, beste gauza batzuen artean, telefonoa eskutitza baino hotzagoa baita, hitza haizeak baitaroa, idatzitakoa, berriz, nekez ezaba daiteke. Nire kasuan, hobeto azaltzen dut pentsatzen dudana idazterakoan, hitz egiterakoan baino.

Marga Zapata



Telefonoz hitz egitea ala eskutitz bat idaztea aukeratzekotan, niri gehiago gustatzen zait telefonoa orain esango ditudan arrazoiengatik:

-Minutu gutxitan nahi duzun pertsonarekin mintzatzeko duzulako, nahiz eta kilometro askotako bitartea egon.

-Etxeko norbait bidaia bat egitera doanean, bertara heltzean telefonoa dei bat eginez, abiapuntura iritsi dela adierazten dit, niregan lasaitasun handi bat izaten delarik.

-Oso alferria naiz idazteko, orduan Gabonak, Urtebetetzeak etabar heltzen direnean, asko laguntzen dit aparailu honek.

Batzuek diotenez oso hotza da, baina nik ez dut horrela uste, zeren eta telefono bidearen beste aldean pertsona bat dago, eta berarekin hitz egin dezaket. Hotza iruditzen zaidana "contestador automatico" delakoa da. Niri hitz egitea gustatzen zait, baita, aldi berean, erantzun ahal izatea ere.

- Orain badaramatzat bi hilabete telefonorik

gabe, eta benetan esan dezaket, haren falta nabaritzen dudala, batez ere, larrialdietan.

Telefonoz hitz doilorrak entzuteagatik momentu txarrak pasa duen jendea ere ezagutzen dut, baina zoritxarrez, mundu honetan oraindik pertsona ajolakabe batzuk gelditzen dira eta, puntu honi dagokionez, ezin daiteke ezer egin.

- Askok beldurtzen naiz gaueko orduetan telefonoaren txirrina entzutean, baina alde onak eta alde txarrak balantza batean jarriz gero, nire ikuspuntutik gehiago dira alde onak, beraz, esan dezaket telefonoa gustatzen zaidala.

Aparailu honetatik gustatzen ez zaidan gauza bakarra zera da: deiak egin eta gero ordaindu behar ditudan fakturak.

Maria Luisa Gurrutxaga



Salvador Celaya

ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA

BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

kalamua SDAD.COOP.
GARIKETA ZERBITZUA
PERTSONA NAGUSIEN
ETA EZINDUEN ZAINKETA.
Tel: 74 22 72 - 74 24 48.

Fotero
OKINDEGIÀ
OPII DEGIÀ
San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

ETA ZURE USTEZ?

Eskutitza ala telefonoa?



Jose Urrutia
59 urte, mekanikoa

Ez naiz korrespondentzian ibilitakoa. Ez naiz estranjerrora idazten ibili. Hemengo gauzetarako nahiago det telefonoa. Hartu, esan eta kitto.



Valentin Martinez
32 urte, egunkari saltzailea
Telefonoaren bidez pertsona batekin hitz egiterakoan beragandik gertuago nagoen sentazioa izaten dut. Kartak idazteko alperregia naiz.



Daniel Rino
31 urte, okina

Kartaren bidez hobeto esplikatzeko dira gauzak, intimoagoa da. Telefonoz oso urduri jartzen naiz. Idatzi aurretik gauzak pentsa ditzakezu eta hobeto espresa zaitezke.



Mari Loli Urkidi
45 urte, etxeandrea
Batuetan telefonoa hobe da urruti dagoen pertsonekin. Bere ahotsa entzuten dezu. Baina karta ere oso pozgarria da; hori hor dago urte batzuetara berriz irakurri nahi badezu ere.



Pili Kruz
25 urte, dendaria

Segun zertarako. Lehenengo telefonoa erabili eta gero karta bat idatziko nuke. Baina, hemen bertan, lagunekin hitzegiteko telefonoa erabiltzen dut.



Aintzane Larreategi
29 urte, txistu irakaslea
Telefonoaren bentaja erraztasuna da. Kartak fetxa oso seinatuetan idazten ditut, Gabonetan eta igual kanpoko lagunei. Baina gutxitan.

EIBAR

OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Ortodontzia |
| 2- Kardiologia | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia | 11- Pediatria |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria |
| 5- Dermatologia | 13- Radiologia |
| 6- Ginekologia | 14- Traumatologia |
| 7- Laborategia | 15- Urologia |
| 8- Barne medizina | |

*Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*

LANBROA



ORAIKO

Egonaldiak familia euskaldunetan

Euskararen Sustapenerako Zuzendaritzak, "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" kanpaina antolatu du euskalduntze prozesuan ari direnek euskaraz bizi eta mintza-tzeko aukera izan dezaten. Familia euskaldunetan egonaldiak 1993ko uztailetik irailera bitartean izango dira eta beharrezkoa izango da familiakide guztiek euskarara menperatzea.

Hilero eta egonaldia buruturiko ikasle bakoitzeko 60.000 pezeta jaso ahal izango du familia bakoitzak. Ikasleak 20.000 pezeta ordaindu beharko ditu eta langabetuek beharpenak izango dituzte. Gainontzeko 40.000 pezetak Euskararen Sustapenerako Zuzendaritzak ordainduko ditu.

Parte hartzera animatzen diren familia guztiek martxoaren 30a baino lehenago aurkeztu beharko dituzte Udaleko Euskarara Zerbitzuan jaso daitezkeen inskripzio fitxak. (Nafarroa Enparantza 3, Tel: 74 43 66).

Eguraldi ona Aralar-Amezketara trabesiako protagonista

39 pertsonak hartu zuen parte Morkaiko Mendizale Elkartek pasa den aste-bukaerarako antolatu zuen Aralar-Amezketara trabesian. Bost ordutan egin zuten Aralargo guardetxetik Amezketarako bidea, eguraldi onaren epeltasuna lagun zutela. San Josetarako, Picos de Europa irtenaldia antolatu du Morkaikok.



KORRIKAn parte hartzeko moduak plazaratu ditu AEKk

VIII. KORRIKA hurbiltzen ari da eta Elgoibarren ere, Gipuzkoako hainbat herritan bezala, KORRIKAREN antolamendurako batzordea eratu da. Aurtengo KORRIKA martxoaren 31an pasatuko da gure herritik eta bertan parte hartu nahi duenak egiteko modu ezberdinak dauzka: kilometroak subentzionatuz, publizitatea eginez edota Lan Kide Aurrezki Kutxan zabaldu duten 072.0.000571-0 kontuan dirua sartuz.

KORRIKA VIII.ak aurrekoek bezala mezu bat zabaldu nahi du Euskal Herrian barna eta horretarako hiru pauso izango dituen kanpaina egingo dute antolatzaileek: Lehendabizikoan, "denok maite dugu gure herria" esaldia barreiatuko da. Bigarren kartelean, "denok maite dugu gure herria euskaraz". Eta hirugarren eta azken kartelak honela esango du: "denok euskaraz".



Datorren astean San Jose jaia dela eta aldizkaria ostegunean kaleratuko da.

PUB

ELGOIBAR

elgoibar

• AZKUE •
pentsu naturalak

Ubitarte 1 Tel.74 02 89

Martxoak 15, kontsumitzailearen eguna

Datorren astelehenean, kontsumitzaileen eskubideen nazioarteko eguna ospatzen da. Kontsumo munduan dagoen arazo eta beharrak aztertu ondoren, Bezeroaren Adierazpen Udal Bulegoak eta Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkartek, Kontsumitzailearen Eskubideen Mundu mailako egunerako oinarriko eskubideen aldeko deialdia egiten dute. Honako hauek dira oinarriko eskubideak: Osasun Segurantza eta babesa, ekonomi eta gizarte interesen babesa, kalte edo hondamenen ordaina edo konponketa, salgai edo zerbitzu ezberdinei buruzko argibidea, legeen osaketan partaidetza eta legediarekiko babesa.



AZKUE

25 zuhaitz landatuko dira Zuhaitz egunean

Elurtea dela eta, aste beteko atzerapenez ospatuko da larunbatean zuhaitz eguna. Goizeko 10,30etan O.H.O.ko 4. eta 8. maila bitarteko haurrek, Udaleko brigadako kideen laguntzaz, Foru Aldundiak emandako 25 zuhaitz landatuko dituzte Batxillergo Institutuaren inguruan. Argazkian, pasa den urteko zuhaitz eguna.

Gazte Asanbladak logotipo lehiaketa antolatu du

Elgoibarren bizi edo ikasten duten gazte guztiek har dezakete parte Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatu duen logotipo lehiaketan.

Parte hartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete. Lanek gaitzizena eraman beharko dute atzeko aldean eta egilearen izena eta helbidea izango duen kartazal itxi bat ere entregatu beharko da, gaitzizena kanpoan eramango duelarik. Lehiaketaren irabazleak 5.000 pezetako saria jasoko du.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 6a arte izango da eta egun horretan Gazte Asanbladak bileran erabakiko du irabazlea. Lanak helbide honetara bidali behar dira: 70 posta kutxatila "Gazte Asanbladako Logotipo Lehiaketa".

Aste Santu eta Pasko asteko ESKEINTZA BEREZIAK

Salou.....	16.100 tik	AUTOBUSEZ:
Benidorm	21.250 tik	Paris
Costa del Sol		Bruselas
Autobusez....	26.900 tik	Venecia
Hegazkinez..	39.300 tik	Amsterdam...38.100 tik
Mallorca	31.900 tik	Ginebra
Canarias	36.300 tik	



Toribio Etxebarria,3
EIBAR Telf. 11 15 69

HEGAZKINEZ:
Londres
Amsterdam..
Roma
Praga
Estambul
Tunez

PETUNIA

Modak

Errosario 12, tel: 74 16 48

Autoedizio eta Diseinu Grafikoa

Zubiaurre

Sta.Klara 40-3. Tel: 744444.

Intsumiso izateagatik epaituko dute hilaren 16an

Azkenaldi honetan, intsumisoei eginiko epaiketak eta eztabaidak direla medio, hamabi berri eta tiro entzun ahal izan ditugu informazio-bideetan. Napoleonek asmatu-riko

derrigorrezko soldaduzkak oesteko filme baten jitea hartu du, Estatua eta gazteria tiraka ari direlarik. Oraingoan, Rafari errepartoan protagonista gisa parte hartzea tokatu zaio.

-Zergatik intsumisoa?

1990eko ekainean soldaduzkara ez joateko objektore deklaratu nintzen baina ez ninduten errekonozitu eta honen ostean Manises-erako (Valentzia) txartela iritsi zitzaidan. Soldaduzkara joatea denbora galtze bat iruditzen zait eta ejerzito espainiarragatik borrokatzeak ez du pena merezi: zera, intsumisioari, soldaduzkari eta bai PSSari (ordezko zerbitzu soziala) uko egitea da.

-Noiz heldu zen epaiketarako deialdia? Zer eskatzen du fiskalak?

Fiskalaren eskaera zerbitzu militarari uko egiteagatik 6 hilabetetako atxilotzea da (arresto mayor). Oraingoan aske aterako naiz aurrekari penalik ez daukadalako, baina geroago zerbitzu militarari espreski uko egiteagatik, guxigorabehera -abokatuaren arabera- 28 hilabetezko kartzela eskatuko dute. Orduan, beharbada, hainbat hilabetez gartzelaratu izango naiz, eta ostean 3. gradua aplikatuko didate: baldintzapeko askatasuna.

-Abokatu eta epaiketa kostuak, zeinek ordaintzen ditu?

Abokatu gastuak Udale-



"Zenbat eta gehiago izan lehenago amaituko dugu soldaduzkarekin"

txeak, 1988an egin zen pleno baten arabera. Justiziarekin -kasu honetan- arazoak izan ditzaketen gazteei laguntza juridikoa ematea erabaki zuten bertan, baina nik ofizioko abokatuak daukat, Donostiakoak ez duelako kompetentziarik Valentziako epaitegian. Epaiketa gastuak nire kontura doaz, Elgoibarko Talde Antimilitaristaren kontura, dirua gelditzen bada... (parre egiten du).

-Plenora eraman zezaten mozio bat sartu zenuten Udaletxean.

Zer gertatzen da horrekin?

PNVak ez du plenora eraman dadin sinatu behar, 6 sinadura behar dira, beraz... laguntzarik jaso ez dugula suposatzen da. Eskaera otsailaren 19an igorri zen eta oraindik ez dugu erantzun ofizialik jaso... beraien jarrera pazifista eta antimilitarista non geldituen galdetzen diot neure buruari... Alkatearekin hitz egiten izan ginen, baina gu geu joan ginelako, zer egin behar zuten ikustera: ez zion zezenari

adarretatik heldu.

-Epaiketaren gertutasuna dela eta, zer pentsatzen duzue egitea?

Asteazkenean, 10ean, Mekan txarila bat egon zen eta ostegunean programa berezi bat Zazpikin. Larunbatean (13) intsumisioaren aldeko borroka egun batetarako deialdia egingo da.

-Nola dago arazoa Elgoibarren?

1989an 15 objektore inguru amnistiatuak izan ziren. Gaur egun PSSari ezekoa ematen diotenak bost intsumiso dira eta soldaduzkari uko egiten diotenak hagei bat izango dira. Guzti hau Talde Antimiliaren datuen arabera. Gurutze Gorrian dauden objektoreak eta beraien ezagupenik ez daukagun beste batzuk kontutan hartu gabe.


-Zer esango zenieke zozketatuak izan behar diren gazteei?

Intsumisoak egin eta Talde Antimiliarekin kontaktuan jar daitezela, informazioa jaso dezaten. Orañ zentsu bat egiten ari gara. Zenbat eta gehiago izan, lehenago amaituko dugu soldaduzkarekin.

Lorea Perez de Albeniz

Martin Garagarza

Garagarza erlojudendakoa



- Ze bitxi erregalatuko zenioke emakume bati? - Eraztun bat.
- Bitxi preziatu bat? -Brillante bat.
- Boltsikoko ala eskuko erlojua? Eskukoa.
- Zilarra ala urrea? - Urrea.
- Zure bizitzako minuturik luzee-na? - Azterketa batetako erresultatua itxoiten egotea.
- Goizean esnatzeko despertadore zaratatsua ala isila? - Despertadore lasai bat.
- Mutilak belarritakoarekin ala gabe? - Berdin zait. Bakoitza bere aldetik ibil dadila.
- Zita bat duzunean garaiz heltzen al zara? - Ordua baino lehen heltzen naiz.
- Mostradore aurrean ala atzean? - Egoeraren arabera. Batzutan hobe da aurrean, bestetan hobe atzean.
- Eguneko ordurik atsegina? - Ondo bukatuz gero, denda isterakoan.
- Denbora librea daukazunean zer gustatzen zaizu egitea? - Pasaiatu eta hitzegin.
- Bitxi asko erregalatzen ditu elgoibartarrak? - Horretarako ere garaiak daude; ekonomia... denak dauka eragina.
- Nork gehiago emakumezkoek ala gizonezkoek? - Erregalatu? Gehiena gizonek emakumeei, zeren normalki emakumeek euren buruei egiten dizkiete opariak.
- Nora joango zinateke oporretara? Kaña hartu eta arrantzara.
- Lotoa ala kiniela? Lotoa. Ez naiz futbolaz enteratzen.
- Angula kiloa ala urre kiloa? Urre kiloa.
- Korbata ala pajarita? Normalki ez dut bietako batere erabiltzen, baina beharbada atseginoago dut pajarita.
- Erlojuak ala bitxiak konpontzea? - Biak egin behar dira, baina nahiago dut bitxiak konpontzea, zeren honela saltzen direlako da.
- Bisuteria ona ala urre baxua? Jendeak urre baxua deitzen dio baina ez dago urre baxurik. Golfield da bisuteria.

Maite Iriondo.

BERTSOTAN

INTSUMISIOA

Doinua: Alargunarena

Gazte jendea soldaduzkagatik aspaldian zen nazkatu.

Objezioaren bide estua, aunitzek du besarkatu.

Gure herrian, hauetakoak ez baitira ez lau katu.

Elgoibartar bat larri dabil ta, laguntza ezin ukatu.


Sapa-hizkera ulertezinez datoz leialtasun eske.

“Bizitzak duen ederrenean izorra hadi urtebete”.

Intsumisioen bizimoduan zenbat pena eta neke...

Bainan norbere kontzientzia giltzapera al liteke?

Jon Barandiaran



AKANDALQ
 O I H A L A
 eta
 MERZERIA
 Errosario 8. Tel:74 35 95

ITZALA *Edergintza*



- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaia
- Sauna
- Solariuma

San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03

MALAPE

Gipuzkoako Duathloi Txapelketa apirilean ospatuko da

Elgoibarko Urgazi Triathloi Taldeak Udaletxeko Kirol Zerbitzuaren laguntzaz, Gipuzkoako Duthloi Txapelketa Elgoibarrera ekartzea lortu du.

Pasa den urteotan Elgoibarko Duathloi edizioen arrakasta ikusita, partaidetza zein antolakuntza aldetik, aurten Gipuzkoako Txapelketa Elgoibarren egitea erabaki du Federazioak.

Apirilaren 25ean ospatuko den txapelketa, Euskadiko Duathloi Txapelketarako baliogarria izango da.

Aurtengo edizioan, parte hartzaileek zazpi kilometro korritu beharko dituzte gure herriko kaleetan zehar. Ondoren bizikletaz 33 kilometro kostalderaino iritsiz eta, azkenik, berriro ere beste 3 kilometro saltaka, Foruen Plazan bildu ohi den parte hartzaile eta ikusle goak sortutako giro apartaren artean bukatzeko.

Aurtengorako, Estatu guztitik etorritako 300 bat kirolarik hartuko duela parte espero dute antolatzaileek.

Espainiako 800 metrotako finalerdian korrituko du Karmen Perea

Karmen Perea elgoibartarrak 800 metrotako lasterketan hartuko du parte larunbat honetan jokatu den Espainiako txapelketan. Finala igandean korrituko da eta Karmen bertan izatea espero da.



Angel Mari Albizu:

Euskadiko Judo txapelduna 86-95 pisan

-Euskadiko Judo txapelketa irabazi duzu, pozik? -Oso pozik. Gipuzkoako txapelketan hanka sartze bat egin nuen. Gripez lau egun gaixo egon eta gero medikuek ez joateko esan zidaten, baina joan egin nintzen eta ez nuen ezer atera. Hau nere aukera izan da.


-Zein beste titulu daukazu?

- Hirugarrena Espainia mailan eta Kantauriko Jokoetan txapeldun atera nintzenekoak dira garrantzitsuenak niretzat.

-Aurtengo Espainiako Txapelketan zer espero duzu? -Lau aste barru da eta preparazio mailan atzeratua nabil, lesio bat dela eta. Dena den, uste baino hobeto erantzuten nago eta preparazioa forzatzen ari naiz. Astero daukat konpetizioen bat. Datorren astean, esaterako, Vigotik deitu didate Galiziako Kluben Ligan profesionalki parte hartzeko.

-Sakrifizio handirik eskatzen al dizu judoak? -Jana zaindu beharra daukat, baina gogorrena entrenamendua da. Astero sei aldiz entrenatzen dut bi edo hiru orduz.

-Ba al dauka horrek zure ikasketetan eragirik? -Joe daukala! Konpatibileak dira, baina oso oso



zaila da. Ikasketak direla eta, mugitu behar bazara, kontutan izan behar da entrenatzeko tokirik daukazun. Gainera, entrenatu, ikasi, lagunak, neska... dena ezin da.

-Judoari esker toki asko ezagutu dituzu... -Bai, Euskadiko selekzioarekin bi aste egin nituen Rumanian. Montrealen Sanbo egiten, Frantzia ere hainbat tokitan, Belgikan (Liejan), Kuban ere bai eta Espainia eta Euskal Herri osoan zehar.

-Aurrera begira zein asmo dituzu? -Entrenadore titulua ateratzen ari naiz eta Deban judoa irakasten dut. Momentuz konpetizioetan jarraitzeko asmoa daukat, Mekanikako ikasketak amaitu eta gero bizitzak esango du.

- Adina: 23
- Superstizioso? Bai, bastante.
- Judoan ondo aritzeko? Entrenatzaile eta lehiakide onak eta buruan gauzak argi izatea.
- Konpetizioa ala parranda? Bakoitza bere garaian.

Orbea
Kafetegia
San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

UDA BERRI
ELGOIBAR

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA - F.M.87.7
24 orduz zuekin
Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

Eskubaloi eskola sortu da Elgoibarren

Pasa den urtarrilaren bukaeran hasi zen Elgoibarko Eskubaloi eskola lehen urratsak ematen, hasiera data ofiziala martxoaren 8a izan zen arren. Joxean Hidalgo, Patxi Aranberri eta Eneko Kortaberria dira klaseak emateaz arduratzen direnak. Guztia musutruk egiten dute, eta gustora gainera, baina ez dute ahazten momentu askotan laguntza falta izan dutela, giza errekurtsioei dagokienean batez ere.



← Alebinak zein infantilak, eskubaloiaeren trukoak ikasten saiatzen dira.

Astero 12 eta 14 urte bitarteko lau talde entrenatu behar izaten dute, alebinetako bi talde eta infantiletako beste bi talde. Maila bakoitzean neska eta mutil taldeak dauden arren, denak batera entrenatu behar izaten dute, talde bakoitza entrenatzeko beste pertsonarik ez dagoelako.

Eskubaloiko eskolan 16 urte arteko ikasleek ere dute kabida, kadete mailakoek, alegia. Maila honetan dago ikasle kopuru handiena, federatu mailan jokatzeko arituen taldeaz gain, beste zaletu asko animatu baita

eskubaloiaeren teknikak ikasten. Beste maila guztietan 25 ikasleko taldeak osatu behar izan dituzte hala eskatzen baitu Foru Aldundiak. Alebin eta infantilek joku eskolarretan hartzen dute parte, eskolan ikasten dutena praktikan jartzeko aukera izaten dutelarik.

Kirol eskolen helburua, eta eskubaloi eskolarena ere, oinarri sendoaz

Azken aldian eskubaloiak gero eta zaletu gehiago ditu. Neskak ere, gero eta gehiago animatzen dira.

hezitutako kirolariak izatea da, besterik gabe. Jubeniletan dabilen taldean, kalitate handiko jokalariek dauden arren, oinarri tekniko-taktikoak falta zaizkiela diosku Joxeane. Ahalik eta baliabide tekniko gehienak irakastea du helburu eskola honek eta eskubaloia ezaugaraztea. Dena den, Elgoibar Kirol Elkarte Eskubaloi Taldearentzat eskola hau "kantera" garrantzitsua izango da, dudarik gabe.

Joxeane, Patxi eta Enekok ez dute ezertxo ere jasotzen burutzen duten lanagatik. Udaletik zein Aldunditik jasotzen

duten dirua kirol materiala erosteko erabiltzen dute.

Entrenamenduak zein kadete mailako partidu guztiak Olaizaga Kiroldegian jokatzeko dira. Instalakuntzak ez dira eskubaloian aritzeko aproposenak Joxeane ustez; pista oso labaina da eta azkenaldian markagailu elektronikoak ez du funtzionatzen. Baina arazo larriena, lagunduko duen jendearen falta da. Pasa den urtean Federazioak 15 isun edo multa jarri zien, partiduetan zelai ordezkariak ez izateagatik.

BETI ARGi, S. L.
Erregalu artikulua
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria.
ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.

MUXI kirolak
 Aukera haundia
 kirolarien zerbitzuan
 Antonio Arrillaga 14 behea
 Tel. 74 01 80

magu's
 ILEAPAINDEGIA
 EDERGINTZA
 San Roke 6 behea tel. 74 34 91

Karakate: perretxiku ikerketan aitzindari

Bitxia bada ere, Karakate elkarteak eraikitzen hasi zirenean, perretxiku bat aurkitu zuten orain beraien bilduleku den horretan. Gertaeraren bitxikeriaz ohartuta eta perretxikuekiko duten zaletasuna zela eta, perretxikua gorde eta harrezgeroztik beraien identifikazio ikurra izango zela erabaki zuten. 1973 urte inguruan izan zen hori.



Karakateko bazkide batzuk soinu eta guzti bazkariren baterako prest.

Urte hartan, lau gazte kuadrilek elkarteak sortzea erabaki zuten. Hasierako bazkideak 120 inguru ziren. Lau kuadrila horietatik, bik alde egin eta beste elkarte bat sortu zuten. Orain, 73 bazkidek osatzen dute Karakate elkarteak.

Irailaren bukaeran edo urriaren hasieran perretxiku erakusketa eta lehiaketa antolatzen dute 15 urtetik beherako gaztetxoentzat. Aurten goa XIX. edizioa izan da. Aranzadi elkarteak urtero ematen die erakusketa prestatzeko laguntza. Lehiaketaren helburua azken batean, zaletasuna piztea da eta benetako zaletuak direnek urtero hartzen dute parte. Deba Arroko edozeinek har dezake parte eta guztira 50 bat

talde, bost lagunez osatutakoak gehienez, bildu izan dira azken edizioetan. Behin, 23-24 kiloko perretxiku bat eduki zuten erakusketan. Aranzadi elkartekoen laguntzaz eta Bernabe Mujika elgoibartarraren ezagutzaz baliatuz, perretxikuen arteko aukeraketa zorrotza egiten dute irabazlea hautatu baino lehen. Azken urteotan lortu diren espezie ezberdin eta arraroak direla eta, kontentu daude antolatzaileak. Lehiaketan 50 puntu inguruan ibiltzen direnen artean, Nafarroara irtenaldia egiten dute lehiaketa osteko hurrengo larunbatean. Bertan, konferentzia bat ematen dute, egunean zehar bil-

dukako perretxikuak aztertuz.

Hasieran mikologiari buruzko konferentziak ematen zituzten, diapositiba eta guzti, baina azkenean utzi egin behar izan zuten, beste kultur ekintza askotan bezala, jendeak ez zuelako parte hartzen. Gerora, Ikastolako eta Urasandiko eskoletako irakasleekin bateginik, irtenaldiak antolatu zituzten perretxiku zaletasuna gazteen artean zabaltzeko asmoaz.

Perretxikuen kontuaz gain, Karakatek sendabelarren erakusketa bat ere antolatzen du urtero eta, edozein elkartek bezala, urtean zehar hainbat bazkari eta ekintza antolatzen laguntzen dute.

Rape "a la americana" Karakate erara

Osagaiak:

- (4 pertsonentzako)
- Kilo bat rape, tajadetan zatitua
- Tomate naturala.
- Piperminarekin prestatua eduki.
- 100 gr. ganba zurituak
- 100 gr. almeja

Nola egin:

Ordubete lehenengo, rapea gatza eta limoitan eduki. Kazuela batean berakatzatza oliotan jarri eta belztu baino lehenengo berakatzak atera. Berakatzak txiki-txiki egin eta olio epel dagoenean bertara bota

berakatzak eta perejil txikitua ere bai. Rapea bertara bota eta eragin. Ganbak eta almejak bota. Saltsa egiten hasten zaionean, tomatea gehitzen joan, arrosa kolorea hartu arte. Almejak zabaldu arte, egiten eduki.

FITXA TEKNIKOA

- Sorrera urtea:** 1973
- Bazkide kopurua:** 73
- Presidentea:** Rikardo Leon
- Urteko kuota:** 15.000 pta
- Berezitasuna:** Mikologia
- Helbidea:** San Roke 5, behea

Elgoibarko historia komikietan kontatua

Askori gehiago gustazen zaigu liburu mardula irakurtzea baino, irudi edo marrazkiz beteriko orrialdeak begizatzea, denborak atzean lagatako kontuen berri jasotzerakoan. Horrela pentsatu zuten behintzat, KOKOEk kideek, Elgoibarko komiki elkarteak. Elgoibarko XVIII. mendeko historia kontatzen duen komikia prestatzen ari dira KOKOEk kideak.



1700. urtetik 1796. urte bitartean Elgoibarren bizi izan ziren pertsonen ohitura eta bizimodua nolakoa zen kontatzen du komikiak. Elgoibarko fikziozko familia baten eguneroko bizimodua da istorioaren ardatza. Telebistako "kulebroien" antzeko argumentua omen dauka eta horregatik interesik ez zaiola faltako uste dute KOKOEk. Familiaren gorabeheren haritik, garai hartako

elgoibartarren bizimodua erakusten du komikiak: jaiak egiten ziren modua, hiletak egiteko era, lanaren mundua...

KOKOEk zenbait kide komiki fanzine bat prestatzen ari dira apirilerako eta besteak proiektu honetan ari dira lanean: Alberto Garzia marrazkiak arkatzez marraztu eta gainetik tintaz pasatzeaz arduratzen da. Iñaki Raigosok errotulazioa egiten du, Jesus Tadeo

kolorea ematen ari da, Enrike Arkauzek gidoia prestatu zuen eta guztia-ko koordinazio lanetan Koldo Lizarralde ari da.

Idea, Irungo komiki batetik jaso zuten. Irunen historiaren berri ematen zuen komikia ikusi ondoren Elgoibarren ere gauza bera egin zitekeela pentsatu zuten. Lehendabiziko zirriborroak pasa den urteko abuztuan egin zituzten eta horrela jarraituz gero urte amaierarako

dena prest izatea espero dute.

Momentuz duten arazo nagusia diruarena da. Proiektua Udalean aurkeztuko dute eta baliteke, Udalak proiektua onartuz gero, komikia argitaratzeko asmoa gauzatu ahal izatea.

Istoria 1796. urtean bukatzen da. Elgoibarren sute bat izan zen garai hartan eta herria guztiz erre zen sutearen ondorioz.

KAIROS

COMPAÑIA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.



San Bartolome 35 - 1
(Murua gozotegia gainean)
Tel: 74 39 25

Hauek izan daitezke zure prezioak. Kontsultaiguzu.

GUTXIGORABEHERAKO PREZIOAK			
MODELOA	BALOREA	3. os	T. RIESGO
4 TALDEA OPEL CORSA 1.0 SEAT IBIZA DISCO	1.000.000	44.785	87.011
5 TALDEA FORD FIESTA 1.1 CLX FIAT UNO 55-S 3P	1.100.000	46.584	92.959
6 TALDEA RENAULT 19 GTX W. VENTO CL 1.8	1.650.000	53.345	122.537
7 TALDEA RENAULT 21 TXE AUDI 801.8 S	2.450.000	57.401	158.009

ZIKLOMOTOREAK- 15.146 pta.

Larunbat goizak zabalik. Zatoz!

Preziorik
hoberenak
zuretzako

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

CAFE
Puff
TEATRO

Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

13 Larunbata

16,30 FUTBOLA

Elgoibar-Palencia

Tokia: Lerungo futbol zelaia

19,00 INSUMISIOAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA

Tokia: Maalako parkea

19,30 ZINEA

"El principe de las mujeres"

Zuzendaria: Reginal Hudlin

Aktoreak: Eddie Murphy, Robin Givens, Halle Berry.

Z I N E A

Marcus Graham emakume ederrak erakartzeko arazorik ez duen New York-eko marketing ejekutibo bat da. Lan egiten duen kosmetiko enpresa beste etxe baten eskuetara pasatuko da. Orain nagusi berria izango du: Jacqueline, emakume erakargarri bezain boteretsua. Hain da boteretsu, non edozein maitalaren proposamenak erdiets ditzakeen.

Z I N E A

14 Igandea

10,30 TXISTU KALEJIRA

13,00 TXISTU KONTZERTUA

Raimundo Sarriegi, Isidro Ansoarena, Federico Korta, Jose M. Iparragirre eta J.I. Ansoaren lanak eskainiko dira.

16,30 ZINEA

"El gran halcon"

19,30 ZINEA

"El principe de las mujeres"

15 Astelehena

19,30 ZINEA

"El principe de las mujeres"

16 Asteartea

BORROKA EGUNA RAFA FELJOOREN EPAIKETAREN AURKA, IKASLE MAILAN

20,00 HITZALDIA


Gaia: Euskal Preso Politikoen egoera.

Tokia: Kultur Etxea

16. Antzerki Jardunaldiak

- Larunbata 13
Teatro Geroa, "Rezagados".
- Igandea 14
Cia. Juan A. Quintana, "El avaro".
- Astelehena 15
Luciano Federico, "Porca miseria"
- Asteazkena 17
UR, "Sueño de una noche de verano".
- Ostirala 19
Agerre teatroa, "Pantzar".

* Funtzio guztiak Eibarko Unibertsitate Laboraleko Antzeztokian izango dira gaueko 8,30etan.



Eibar
Eibar

KOLOREA BEGIRADA BIHURTZEN DA KOLOREZKO LENTE KOSMETIKOAK MULTIOPTICASen



URDINAK, BERDEAK, GRISAK, NABARRAK... KOLOREA BEGIRADA BIHURTZEN DA ZUREGAN IRUDI BERRI BAT AURKITUZ. GRADUATUAK EDO GRADUAZIOARIK GABEAK, INORK EZ DIKIZU NABARITUKO. ZABAL ITZAZU BEGIAK ESTETIKA BERRIARI.

BAUSCH & LOMB



San Francisco, 21 - ELGOIBAR

MULTIOPTICAS
Beti Zuri Begira

Galdutakoak

Izarraitzen, hilak 25 ostegunean, poltsa granate bat galdu nuen. Barruan historia liburu bat eta betaurrekoak zeuden.

Tel. 74 44 51 Carolina Sanchez.

Udaltzaingoak jasotako gauzak: Urrezko eskumuturreko bat, eguzkitako betaurrekoak, emakumezkoen diru poltsa, giltzak, gazteen kazadora, erloju bat, eraztun bat, brotze bat, painelu bat, sonbrero bat.

Lana

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Goizez etxeko lanak egiteko eta ume bat zaintzeko pertsona bat behar dugu.
Deitu 74 36 08 telefonora gauzez, 8-10ak artean.

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.
Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.

Salerosketak

"Asolo Super-soft" (42zbk.) botak eta "Sofitex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,
Aritza 74 05 90.

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.
Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.

BUTANOZKO SUKALDEA salgai. 3 su eta labea. Horrekin batera, zenbait altzari osagarri oparituko genuke: aulkia, apala, etab...
Gauzez: 74 14 25

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 23 27 Egun osoz.

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pza.
Alberto: 74 14 94

Nintendo Kontsola bat saltzen dut. AUKERA!!
Tel: 74 23 27

Kontaktuak

Musika egiten duen lagun talde bat gara. Lokalen bat alokatu nahi genuke entsaiuak egiteko. Alokatzeko moduan **lokalik baldin baduzu, deitu 74 33 66 telefonora eta Josurengatik galdetu.**

EZ DITUZU LEIHOAK ALDATU BEHAR

LEIHOETAKO

ZIRRIKITUETATIK:

- HOTZA
- HAIZEA
- HAUTSA
- ZARATA
- POLENA

SARTZEN BAZAIZU...



Altzairu inoxidablezko burleteak betirako dituzue.

- Edozein leihotarako
- Instalazio azkarra
- 4-6 gradu gehiago, etxe barruan.

OBRARIK GABE


glas control

Ubitarte 7. ELGOIBAR

ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

74 30 94 - 74 43 54



G  **LF** berria: Kotxe honetaz asko idatzi da.

Autorik Seguruena

Urteko autoa Europan

Zatoz eta GOLF batekin irtengo zara.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR